

Getxoko liburu azoka solidarioan bildutako ia 10.300 euro Ekuadorren drogazaletasuna prebenitzera zuzendu dituzte

Getxoko udal liburutegiek egindako Bigarren Eskuko Liburuen III. Azoka Solidarioan lortutako dirua eman dio gaur goizean Ayuda Mas gobernuz kanpoko erakundeari Imanol Landa alkateak. Bildutako 10.254 euro Ekuadorreko ikastetxe batzuetan nerabeen drogamendetasuna prebenitzeko izango da. Aurtan, gainera, inoiz baino diru gehiago lortu da, 2007an 6.058 euro eta 2006an 6.500 euro batu baitziren. Iaz, Algortako Hirukoiztarrei eman zitzaizen dirua, Magadaskarren eskolak egiten laguntzeko; eta 2006an Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteari (EHIGE) Saharan beste horrenbeste egiteko. Landak ' arrakastatsutzat ' jo du ekimena, ' urrun dauden errealitateekin ere getxoztarrek erakusten duten elkartasuna agerian uzten baitu ' . Gogoratu, liburu azoka solidarioan herritarrek eman eta erakusgai jarritako liburuen salmentatik atera dela Ekuadorrera zuzendutako diru laguntza. Oraingo honetan, 12.000 bat liburu jarri zituzten salgai ekainaren 25etik 28ra bitartean, euro baten truke. ' Ekimenak udalerrinari lotuta dauden elkartasuna, altruismoa, konpromisoa eta kultura batzen ditu, herritarrek eman eta ondoren erosten dituzten liburuen salmenari esker aurrera eramán daitekeelako egitasmoa ' , nabarmendu du alkateak. Argazkian, ezkerretik eskuinera, Maria Gonzalez Ayuda Mas erakundeko presidentea, Imanol Landa alkatea eta Teresa Gomeza aipatu GKEko diruzaina, txekia eskuan.

Ayuda Mas gobernuz kanpoko erakundea herrialde batzuetako, esate baterako, Peru, Ekuador, India eta Txinako auzo txiroetako herritarren alde ari da lanean 1994tik hona. Bere helburuen artean daude ' hezkuntza eta osasun zainketa ahalbideratzea, giza eskubideak sustatzea eta aldaketa prozesuetarako emakumezkoak prestatzea ' , GKE horretako arduradunek azaldu dutenez. Fundación Centro de Promoción Social de Río Manta tokiko erakundearekin elkarlanean, Ekuadorreko ikastetxe batzuetan nerabeen drogazaletasuna prebenitzeko egitasmorako izango da oraingoan bildutako dirua, azken urteotan herrialde horretako gazteen artean drogen kontsumoa areagotu baita. Egitasmoaren beharra bertoko neska-mutilen bizimoduei buruz egindako ikerketak utzi du agerian. Azterketa lan hori 2006an eta 2007an Getxoko Udalaren laguntzarekin aurrera eramandako proiektuaren barruan burutu da. Laguntza hori eskertu ondoren, Ayuda Mas erakundeko arduradunek, Maria Gonzalez presidentea eta Teresa Gomeza diruzainak, mota honetako egitasmoetan ' prebentziorako heziketak duen garrantzia ' nabarmendu dute.

1.400 gazteei zuzenduta

Egitasmoaren onuradun zuzenak Mantaizeneko kantonamenduko 11 eta 29 urte arteko 1.400 bat gazte izango dira. Proiektuak neska-mutil horien heziketari eman nahi dio lehentasuna, ' drogak hartzeak dakartzan arriskuez ohartarazteko ' . Horretarako, honako jarduera hauek eramango dituzte aurrera: drogen kontsumoa prebenitzeko irakasleei trekkuntza ematea, kontsumoari aurre egiteko jarduera batzuk eskola curriculumean sartzea, eskola lehiaketa antolatzea eta familiekin prebentzio lana egitea.